

TXOSTENA

BILBOKO GOBERNU BATZORDEARI

Gobernu Batzordeak 2026ko martxoaren 25ean hartutako Akordioaren bidez, 2026. Urtean euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia onartu zen.

Deialdiko oinarrien 5.2 artikuluan eskaerak aurkezteko epea zehazten da: "15 egun baliodun, deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera".

Hori horrela, aurreikusten diren 1.800-2.000 eskaera kudeatzeko, Euskarako Zuzendaritzatik antolakuntza eta koordinazio-ahalegin handiak egin dira hilabeteetan zehar Udaleko beste atal askorekin: web-formularioak Alkatetzarekin, dirulaguntzen aplikazioa BilbaoTIKekin, prentsa-oharra Komunikazio Bulegoarekin eta informazio-trukea Erregistroarekin eta 010arekin, besteak beste. Horrez gain, Bilboko 17 euskaltegiekin ere koordinazioa adostu da, eskatzaileek aurkeztu beharreko ziurtagiria osatzeko prest egon daitezen eskaera epea zabalik egongo den bitartean.

Logistika-lan hori guztia epe zehatz baten erreferentziarekin egin da: apirilaren 14tik maiatzaren 5era bitartean zabalik egongo litzateke eskaerak egiteko epea. Hori dela eta, Bizkaiko Aldizkari Ofizialera argitaratzeko eskaera bidali zenean, espreski eskatu zen apirilaren 13an argitaratzea. Are gehiago, Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren aldetik, konfirmazioa heldu zitzaigun, hain zuzen ere, apirilaren 13an argitaratuko zela.

Hala eta guztiz ere, Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren akats batengatik, apirilaren 9an argitaratu zen Akordioaren laburpena. Horren eragina zen epeak aurreratzen zirela eta eskaerak egiteko epea apirilaren 10etik 30era izango zela, horrek zekarren antolakuntza-arazoekin eta logistikaren aldetik eragiten zuen deskoordinazioarekin, bai Udal barruan bai Udaletik kanpo euskaltegientzat eta herritarrentzat.

Égoera horrek sortuko zituen kalteak saihesteko helburuz, Euskarako Zuzendaritzak Bizkaiko Aldizkari Ofizialarekin adostu zuen apirilaren 9an bertan, eguerdian, akatsen zuzenketa bat argitaratzea, eskaerak aurkezteko epea zuzentzeko: "Eskaerak aurkezteko epea 2026ko apirilaren 14an hasiko da eta 2026ko maiatzaren 5ean amaituko da, biak barne".

Hala, Bizkaiko Aldizkari Ofizialak apirilaren 9ko buletinaren eranskin bat argitaratu zuen eskaerak egiteko epea zuzentzeko.

Beraz, dirulaguntza deialdi honetan inplikaturik dauden alde guztien koordinazioa eta antolaketa egokia bermatzeko, egokituz hartzen da Gobernu Batzordeak Akordio bat hartzea deialdiaren 5.2 artikuluan zehazten den eskaera-epea zuzentzeko eta bat etortzeko apirilaren 14tik maiatzaren 5era doan epearekin.

Azaldutakoaren arabera, Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 127. artikulua Gobernu Batzordeari ematen dizkion ahalmenez baliatuz, honako hau egin dut:

ERABAKI PROPOSAMENA

BAT.- Bilboko Udalak euskara ikasteko ematen dituen 2026ko dirulaguntzen deialdiaren 5.2 artikulua zuzenketa **onartzea**, idazkera honekin:

“5.2. Eskariak aurkezteko epea: eskaerak aurkezteko epea 2026ko apirilaren 14an hasiko da eta 2026ko maiatzaren 5ean amaituko da, biak barne.”

Bilbon, 2026ko apirilaren 13an

EUSKARAKO ZUZENDARIA

M^a Jose Arrieta Sagarna

PROPUESTA DE ACUERDO

PRIMERO.- Aprobar la modificación del artículo 5.2 de la convocatoria de ayudas económicas del 2026 que el Ayuntamiento de Bilbao concede para el aprendizaje del euskera, dándole la siguiente redacción:

“5.2. Plazo de presentación de solicitudes: el plazo de presentación de solicitudes será desde el 14 de abril de 2026 hasta el 5 de mayo de 2026, ambos inclusive.”

Bilbao, 13 de abril de 2026

O.E.

EUSKARAKO, HERRITARREN
ARRETA ETA PARTAIDETZAKO, 2030
AGENDA KO ETA NAZIOARTEKO
GAIETAKO SAILEKO ZINEGOTZI
ORDEZKARIA

Eider Inunciaga Serna